



## Hau da aste honetako euskararen pilula!

"*Acoso*" euskaraz, nola?

### Acoso > jazarpen, jazartze

Hona hemen jazarpen mota batzuk:

*acoso sexual* > *sexu-jazarpen*

*acoso por razón de sexo* > *sexuan oinarritutako jazarpen, jazarpen sexista, sexuagatiko jazarpen*

*acoso laboral* > *laneko jazarpen*

*acoso escolar* > *eskola-jazarpen, bullying*

*acoso moral* > *jazarpen moral*

*acoso por razón de discapacidad* > *desgaitasunean oinarritutako jazarpen*

*ciberacoso* > *ziberjazarpen, cyberbullyng*

*acoso comercial telefónico* > *telefono bidezko merkataritza-jazarpen, telefono bidezko jazarpen komertzial*

*acoso discriminatorio* > *bereizkerian oinarritutako jazarpen, bereizkeriazko jazarpen*

Horrela definitu zen 2015eko Zigor-Arloa eta Espetxe-zaintza Hiztegian "**sexu-jazarpenaren delitu**" ("sexu-jazarpen" > "delito de acoso sexual", "acoso sexual"):

Sexu-mesedeak eskatzea, laneko, irakaskuntzako edo zerbitzu-eskaintzako harreman jarraitu edo ohikoen eremuan, betiere jokabide horrekin biktimarengan larderiako, etsaigoko edo umiliazioko egoera objektiboa eta larria sortuz.

### ADIBIDE BATZUK

- "La persona acosada será la única legitimada en los litigios sobre **acoso** sexual y **acoso** por razón de sexo" > "**Jazarpena** jasan duen pertsona izango da sexu-**jazarpenari** eta sexuagatiko **jazarpenari** buruzko auzietan legitimatu bakarra"
- "**Acoso** por telecomunicaciones a menores de 16 años (art. 183 ter) > "16 urtetik beherakoei telekomunikazio bidez **jazartzea** (183 ter art.)"
- "Tutela de los derechos de libertad sindical, huelga y demás derechos fundamentales y libertades públicas, incluida la prohibición de discriminación y el **acoso**" > "Askatasun sindikalaren eskubidearen, greba-eskubidearen eta gainerako oinarritzko eskubideen babesa, diskriminazioaren eta **jazarpenaren** debekua barne"

### ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)